



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko urtarrilaren 21a

5. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako 2020ko Kontu Orokorrei buruzkoa (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Interpelazioa, hezkuntza arloko politika orokorrari eta esparru horretan itun sozial eta politiko bat lortzeko prozesuari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztu du (4. or.).

—Interpelazioa, Eskubide Sozialetako Departamentuak bakarrik dauden adingabe atzerritarrei zuzendutako jarduketei buruzkoa. Isabel Aramburu Bergua andreak aurkeztu du (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Gazteentzako Informazio Sareari buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (6. or.).

—Galdera, Xacobeo Gaztea programari buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (6. or.).

—Galdera, zahar-etxeetan bisitak bertan behera uzteko irizpideei buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (7. or.).

—Galdera, 2020ko Kontu Orokorrei buruzko txostenean Kontuen Ganberak adierazitako salbuespenari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (7. or.).

—Galdera, Iratxeko monasterioaren jabetza lagatzeari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (8. or.).

—Galdera, Muesko erromatarren presako aztarnategia hartzen duen finkari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (9. or.).

—Galdera, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuan 2021ean egindako aparteko orduei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (10. or.).

—Galdera, 2006tik 2013ra bitarte ibilgailu-parkea berritzera bideratutako laguntza publikoei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (11. or.).

- Galdera, Nicasio Landa ikastetxe publikoaren egoera aztertzeko sortu zen lantaldeari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Nafarroako Ekialdeko Pirinioen Suspertze Ekonomikorako Planeko ekintzailtzako eta mikroenpresen proiektuan garatutako jarduketari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (12. or.).
- Galdera, 10+500 kilometro puntutik 22+500 kilometro puntura bitarte N-121 errepidea 2+1 bide bihurtzeko proiektuari buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (13. or.).
- Galdera, NABIren webguneko departamentuetako berdintasun-unitateekiko mintzakidetzarako plataformari buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (14. or.).
- Galdera, Nafarroan Eliza Katolikoaren izenean immatrikulatutako finkei ondasun higiezinaren gaineko zerga aplikatzeari buruzkoa. Galdera erretiratzea (14. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Foru parlamentariak 2022ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituzten ordainsariak (15. or.).
- Nafarroako Parlamentuko lehendakariak 2022ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituen ordainsariak (16. or.).
- Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileek 2022ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituzten urteko ordainsari gordinak (16. or.).
- Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzeagatik 2022ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituzten ordainsariak (17. or.).
- 2022. urterako araubidea, foru parlamentariak egiten dituzten bidaia ofizialengatik eta Legebiltzarreko langileek zerbitzu-ematearen kariaz egiten dituztenengatik ordainsariena (17. or.).
- Talde parlamentarioek 2022an jasoko dituzten dirulaguntzak (18. or.).
- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioek eta kontratudunek beren mailaren arabera 2022ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituzten ordainsariak (18. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako 2020ko Kontu Orokorreari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Gobernuak, 2021eko ekainaren 30ean hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako 2020ko Kontu Orokorreari buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura. Hari buruz, Kontuen Ganberak txosten bat eman du, 2021eko abenduaren 20ko 146. Nafarroako Parlamentuko Aldikari Ofizialean argitaratua.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 157. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Xedatzea Nafarroako 2020ko Kontu Orokorreari buruzko Foru Lege proiektua Legebiltzarraren Osoko Bilkuran irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin (10-21/LEY-00005).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako 2020ko Kontu Orokorreari buruzko Foru Lege proiektua

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Diputazioari dagokio Aurrekontu Orokorrak prestatu eta Kontuak formalizatzea Parlamentuan aurkezteko, bertan eztabaidatu, zuzendu eta, hala erabakiz gero, onets daitezzen. Hori guztia, foru legeetan ezarritakoari jarraituz.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 123. artikulua Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren esku uzten du Nafarroako Kontu Orokorraren formula-zioa. Horiek, behin Nafarroako Gobernuak onetsitakoan, Nafarroako Parlamentura behar dira igorri dagokion foru legearen proiektuaren bidez, aipatutako foru legearen 130. artikuluan ezarri bezala.

Nafarroako Gobernuak eginak ditu 2020ko ekitaldiko Kontu Orokorreari buruz adierazitako tramiteak, Kontuen Ganberak emana du behar den irizpena eta tramitatua dago Nafarroako 2020ko Kontu Orokorreari buruzko Foru Legearen proiektua Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 157. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz. Bidezko da, beraz, foru lege hori onestea.

Artikulu bakarra. Onesten dira Nafarroako 2020ko Kontu Orokorrak, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak formulatu eta Nafarroako Gobernuak onetsiak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 130. artikuluan ezarritakoaren arabera. Kontu Orokorraren edukia Nafarroako Atarian ematen da argitara.

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Interpelazioa, hezkuntza arloko politika orokorrari eta esparru horretan itun sozial eta politiko bat lortzeko prozesuari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko interpelazioa, hezkuntza arloko politika orokorrari eta esparru horretan itun sozial eta politiko bat lortzeko prozesuari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapide-tzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren ele-dun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Hezkuntza arloko politika orokorrari eta esparru horretan itun sozial eta politiko bat lortzeko prozesuari buruzko politika orokorra.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Interpelazioa, Eskubide Sozialetako Departamentuak bakarrik dauden adingabe atzerritarrei zuzendutako jarduketei buruzkoa.

ISABEL ARAMBURU BERGUA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Aramburu Bergua andreak aurkezturiko interpelazioa, Eskubide Sozialetako Departamentuak bakarrik dauden adingabe atzerritarrei zuzendutako jarduketei buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapide-tzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Isabel Aranburu Bergua andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariari zuzendua:

Azken egunotan, zenbait gazteren jarrera jakin batzuei buruzko adierazpen publikoak entzun ahal izan ditugu, adingabe atzerritarrei egozten zaizkienak.

Geroa Bai oso kezkatuta dago balorazio horiek direla-eta; izan ere, adingabeak kriminalizatzen ari dira inguruabar soil batengatik: beren jatorriagatik. Gure talde parlamentarioaren ustez, haurren eskubideen defentsaren ikuspuntutik epaitze horiek onartezinak dira zeharo.

Baina gure kezka haratago doa, zeren eta, gure ustez, desberdina denarekiko errespetuan

oinarritzen den bizikidetasuna hausteko bide arriskutsua hauspotzen baitute jarrera xenofobo horiek, eta arriskuan jartzen baitute Nafarroa erkidego abegikorra izatea, hori baita, hain zuzen ere, herritar gehien-gehienek nahi duten gizarte-eredua.

Erakunde publikoen betebeharra da –kasu honetan, Nafarroako Gobernuarena– auzi horri lehenbailehen eta erabakitasunez ekitea, gure erkidegoan gizarte-kohesioa babestuko duten politikak proposatuta.

Hortaz, Eskubide Sozialetako kontseilariari zuzendutako honako interpelazio hau aurkezten dugu, jakiteko ea bere departamentua zer egiten ari den eta zer egiteko asmoa duen, bakarrik dauden adingabe atzerritarrak direla-eta.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Isabel Aranburu Bergua

F saila:
GALDERAK

Galdera, Gazteentzako Informazio Sareari buruzkoa.*CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Gazteentzako Informazio Sareari buruz Carlos Mena Blasco jaunak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Mena Blascok, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, lehen lehendakariorde eta Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer neurri garatzen ari da Nafarroako Gazteriaren Institutua gure erkidegoan Gazteentzako Informazio Sarea bultzatzeko?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

Galdera, Xacobeo Gaztea programari buruzkoa.*CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Xacobeo Gaztea programari buruz Carlos Mena Blasco jaunak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Mena Blascok, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, lehen lehendakariorde eta Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gazteriaren Institutuak ba al du 2022an Xacobeo Gaztea programa egiteko asmorik?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

Galdera, zahar-etxeetan bisitak bertan behera uzteko irizpideei buruzkoa.

PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea zahar-etxeetan bisitak bertan behera uzteko irizpideei buruz Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan eza-

iritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozialetako kontseilari Carmen Maeztu Villafranca andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Seigarren olatu honetan kutsatze ugari gertatu da, baita zahar-etxeetan eta mendekotasuna duten pertsonen egoitzetan ere. Erabiltzaile asko ari dira konfinatzen, eta horrek eragotzi egiten du familiakoen bisitak jaso ahal izatea.

Horregatik guztiagatik, parlamentari naizen honek hauxe galdetzen dut:

Zeintzuk dira bisitak bertan behera uzteko irizpideak? Departamentua horien jarraipena egiten ari al da? Irizpideak berdin aplikatzen al dira egoitza guztietan?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

Galdera, 2020ko Kontu Orokorrei buruzko txostenean Kontuen Ganberak adierazitako salbuespenari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, 2020ko Kontu Orokorrei buruzko txostenean Kontuen Ganberak adierazitako salbuespenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkeztu dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Kontuen Ganberak 2020ko Kontu Orokorrei buruz egindako txostenean honako hau esaten da finantza-auditoretzaren gaineko salbuespenei dagokienez:

“Hirugarrenen kontabilitate osagarrian eta zerga-kudeaketan (CAT) eta SAPGE21 kontabilitate-sisteman ekitaldian jasotako kobrantzei buruz jasotako informazioa ez da behar bezala eskualdatu. Hortaz, ezin da identifikatu ekitaldian edo aurreko urteetan sortutako diru-sarrereri dagozkien. Horregatik, 1. eta 2. kapituluetako diru-sarreen aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriko diru-bilketa garbiak beste ekitaldi batzuetan sortutako eskubideen kobrantzak izan ditzake. Horri dagokionez, egiaztatu dugunez, diru-sarreen 1.

eta 2. kapituluari dagokien bilketa garbian bildutako 3.586,40 milioietatik 3.257,13 milioi 2020an sortutako diru-sarrerari dagozkie. Bilketa garbiaren gainerakoari dagokionez (329,09 milioi), ez dugu 2020an edo aurreko ekitaldian sortutako diru-sarrerekin bat datorren ebidentziarik.

Horrek, era berean, ondorioak ditu diruzaintzako gerakinetik kobratzeko dauden eskubideen epigrafean eta balantzeko aurrekontu-zordunen epigrafean. Zifra globalak zuzenak izanda ere, ez dago haien osaeraren banakapena arrazoizkoa izatearen ebidentziarik”.

Txosten horretan bertan, “Iruzur fiskalaren aukako borroka” atalean, honako hau esaten da Nafarroako ogasunak 2020an sortutako diru-sarrerari dagokienez:

“Erakutsitako diru-sarreraren sortzapenak ez dakar berekin kopuru horiek kobratu izana; ares-tian aipatu dugun bezala, CATen diseinuan eta tributuen kudeaketan eta kontabilitatean erabiltzen diren aplikazio informatikoen artean dauden arazoak direla eta, ezin dugu identifikatu zerga-iruzuraren aurkako borrokan detektatutako kopurutik zenbat diru bildu den egiazki”.

Gauzak horrela, galdera hauek egiten dira:

1. Hirugarrenen kontabilitate osagarrian eta zerga-kudeaketan (CAT) eta SAPGE21 kontabilitate-sisteman ekitaldian jasotako kobrantzei buruz

jasotako informazioa zergatik ez da behar bezala eskualdatu?

2. 2020an diru-bilketa garbia 3.586,40 milioi-koa izan zen, eta hortik 3.257,13 milioi 1. eta 2. kapituluetan 2020an sortutako diru-sarrerari dagozkie. Nondik sortu dira, hortaz, gainontzeko 329,09 milioiak?

3. Zer arrazoi teknikok eragozten du modu fede-emailean identifikatu ahal izatea zenbat diru bildu den egiaz iruzur fiskalaren aurkako borrokan detektatutako zenbatekotik (horri buruzko informazioa urtero ematen da)?

4. Ogasunak nola identifikatzen ditu ekitaldi bakoitzean iruzur fiskalaren aurkako borrokan sortzen diren diru-sarrerak eta hurrengo ekitaldian kutxan kobratzen ahal diren diru-sarrera errealak?

5. Nafarroako Ogasuna zer ari da egiten Nafarroako Ogasunak detektatutako salbuespen horiek zuzentze aldera? Nafarroako enpresa publikoren bati agindu al dio egin beharreko aldaketa teknikoak egin ditzan kontabilitatea, zerga-kudeaketa eta kontabilitate-sistema arautzen duten aplikazio informatikoetan, halako moduan non behin betikoz konponduko diren diru-sarrerak behar bezala identifikatzea eragozten duten arazo horiek?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Iratxeko monasterioaren jabetza lagatzeari buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iratxeko monasterioaren jabetza lagatzeari buruz Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Kultura eta Kiroleko kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Zertan da Espainiako Gobernuak Nafarroako Gobernuari Iratxeko monasterioaren jabetza lagatzearen auzia?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Galdera, Muesko erromatarren presako aztarnategia hartzen duen finkari buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera, Muesko erromatarren presako aztarnategia hartzen duen finkari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Kultura eta Kiroleko kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Departamentuak zer urrats egin du Muesen erromatarren presako aztarnategia hartzen duen finkaren jabetza edo errentamendua (1. poligonoa, 597. lurzatia) ebazteko?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Galdera, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuan 2021ean egindako aparteko orduei buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuan 2021ean egindako aparteko orduei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuan nabarmena da langile gehiago behar dela. Gauza jakina da abian dela, gabezia hori konponbidean jartzeko,

zenbait lan-eskaintza publiko egiteko prozesua. Halere, lan-eskaintza publiko horiek bukatu arte (eta deialdia egin ez den bitartean) milaka aparteko ordu egin dira (eta egiten ari dira) Nafarroako suhiltzaileen parkeetan gutxieneko segurtasuna bermatzeko, ez baita bestelako kudeaketa-mekanismorik bilatu egoera hori arintzeko.

Gauzak horrela, galdera hauek egiten dira:

1. Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuan aparteko zenbat ordu –lanegunetakoak nahiz jaiegunetakoak– egin ziren 2021ean? Zenbateko kostua izan zuen horrek?

2. Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuan izotz-elurretako aparteko zenbat ordu –lanegunetakoak nahiz jaiegunetakoak– egin ziren 2021ean? Zenbateko kostua izan zuen horrek?

3. Gauza jakina da, halaber, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuan badela talderen bat guardia lokalizatuak egiten dituena. Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuan guardia lokalizatuko aparteko zenbat ordu –lanegunetakoak nahiz jaiegunetakoak– egin ziren 2021ean? Zenbateko kostua izan zuen horrek?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 3an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, 2006tik 2013ra bitarte ibilgailu-parkea berritzera bideratutako laguntza publikoei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, 2006tik 2013ra bitarte ibilgailu-parkea berritzera bideratutako laguntza publikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Auzitegi Gorenaren epaiaren arabera, Nafarroako ibilgailu-kontzesionarioek jokabide ilegalak baliatu zituzten denbora batez prezioak ezartzean. Hori dela-eta, parlamentari naizen aldetik honako hau jakin nahi dut:

Zenbat egiten dute, guztira eta urtez urte xehakatura, Nafarroan ibilgailu zaharra baja ematearen truke ibilgailu berria erosita ibilgailuen parkea berritze aldera 2006tik 2013ra bitarte bideratu diren laguntza publikoek?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nicasio Landa ikastetxe publikoaren egoera aztertzeke sortu zen lantaldeari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, Nicasio Landa ikastetxe publikoaren egoera aztertzeke sortu zen lantaldeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako Foru Parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, eskatzen du Nafarroako Gobernuak honako galdera honi idatziz erantzun diezaion:

Aurretik Gobernuari egindako 10-20-PEI-00230 informazio eskaerari eta 10-20-PES-00197 galderaren erantzunei erreparatu, Etxabakoizko Nicasio Landa ikastetxearen egoera kezagarria dela esan daiteke.

Departamentuak ikastetxeari aitortzen dio hezkuntza eta gizarte ikuspegitik egiten duen lan eskergea eta asmoa adierazten du ikastetxea irekita mantentzeko matrikula oso txikia izanda ere, itxiko balitz eskola absentismoa areagotzeko arriskua larria litzatekeelako.

Gure ustez, irekita mantentzea ez da nahikoa, baldin eta bestelako neurririk hartzen ez bada eskolan matrikulazioa handitzeko eta auzoarekiko lotura indartzeko. Hartara, Gobernuari galdetu genion ea bere kabuz edo Iruñeko Udalarekin batera, ikastetxea biziberritzeko eta auzoarekiko lotura komunitarioa indartzeko neurriren bat lantzen ari zen. Horri emandako erantzuna honakoa izan zen:

En estos momentos se ha constituido un grupo de trabajo integrado por personal técnico del Servicio de Inspección, del Negociado de Convivencia y del Negociado de Inclusión para, en colaboración con la Unidad de Barrio correspondiente y el equipo directivo del centro, establecer una estrategia de actuación integral que aborde la actual situación en la que se encuentra el CPEIP Nicasio de Landa.

Kontuan hartuta erantzun hori 2020ko azaroaren 4koa dela, honako galderak egiten dizkiogu Hezkuntza Departamentuari:

– Zenbat bilera egin ditu lantalde horrek? Zein epetan? Gaurdaino lanean ari da?

– Bilera horien aktarik jaso da? Hala bada, helaraztea eskatuko genuke.

– Ikastetxearen egoerari aurre egiteko aipatzen den estrategia integrala osatu da? Estrategia dokumentu batean jaso al da? Zein dira adostutako ildo eta ekimenak?

– Aztertu al du Hezkuntza Departamentuak, ikastetxea biziberritzeko eta matrikulazioa handitzeko ekimenen artean, D ereduko lerroa zabaltea?

– 2019-20 ikasturtean guztira 32 ikasle zeuden matrikulatuta. Zenbat izan ziren 2020-21ean? Eta 2021-22 ikasturte honetan?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 13an

Foru Parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Nafarroako Ekialdeko Pirinioen Suspertze Ekonomikorako Planeko ekintzailtzako eta mikroenpresen proiektuan garatutako jarduketeki buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako Ekialdeko Pirinioen Suspertze Ekonomikorako Planeko ekintzailtzako eta mikroenpresen proiektuan garatutako jarduketeki buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aur-

kezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

2021eko aurrekontu-ekitaldian “Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziarako Planekoak” izeneko inbertsioko jarduketan garapena finantzatzera bideratutako dirulaguntzak zuzenean nola eman arautzen duen urriaren 19ko 902/2021 Errege Dekretuak 3.000.000 euro ematen dizkio Nafarroako Foru Komunitateari, Nafarroako Ekialdeko Pirinioen Suspertze Ekonomikorako Planeko ekintzailtzako eta mikroenpresentzako proiektu baterako.

Errege dekretu horretan esaten denez, kasuko hitzarmena sinatu eta gero ordainduko da dirulaguntza, bertan adierazitako moduan ordaindu ere, zer jarduketa zehatz egingen diren jasotzen duen plana aurkeztu ondotik.

Zer jarduketa egin dira orain arte proiektu hori garatzeko?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, 10+500 kilometro puntutik 22+500 kilometro puntura bitarte N-121 errepidea 2+1 bide bihurtzeko proiektuari buruzkoa.

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkezturiko galdera, 10+500 kilometro puntutik 22+500 kilometro puntura bitarte N-121 errepidea 2+1 bide bihurtzeko proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten dio Lurralde Kohesiorako kontseilariari, idatziz erantzun diezaion.

Lizitatu al da, behin 2022ko aurrekontuak onetsita, 10+500 kilometro puntutik 22+500 kilometro puntura bitarte –Burutaingo saihesbidea– N-121 errepidea 2+1 bide bihurtzeko proiektua?

Lehenbiziko lizitazioaren aldean zertan aldatuko da, zehatz-mehatz, eskatutako kaudimen profesionala? Zer dela-eta aldaketa hori? Gertatutakoaren ondorioz proiektu teknikoaren idazketa zenbat atzeratuko dela kalkulatu duzue?

Nafarroan, 2022ko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

Galdera, NABIren webguneko departamentuetako berdintasun-unitateekiko mintzakidetzarako plataformari buruzkoa.

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkezturiko galdera, NABIren webguneko departamentuetako berdintasun-unitateekiko mintzakidetzarako plataformari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Isabel

Olave Ballarenak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 14. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten dio Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilariari, idatziz erantzun diezaion:

NABIren webgunean departamentuetako berdintasun-unitateekiko mintzakidetzarako plataforma bat dagoela esaten da, baina ez du funtzionatzen, eta beste horrenbeste gertatzen da berdintasunerako urteko programen estekarekin, non berdintasunerako unitateen lanaren plangintza jasotzen baita, bai Administrazio osoari dagokionez, bai departamentu bakoitzari dagokionez. Zergatik?

Nafarroan, 2022ko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

Galdera, Nafarroan Eliza Katolikoaren izenean immatrikulatutako finkei ondasun higiezin gaineke zerga aplikatzeari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Mikel Buil García jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera Nafarroan Eliza Katolikoaren izenean immatrikulatutako finkei ondasun higiezin gaineke zerga aplikatzeari buruzkoa zen, eta

2021eko abenduaren 27ko 149. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/POR-00458).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Foru parlamentariak 2022ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituzten ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 17an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak txosten bat jaulki du foru parlamentarien 2022. urterako ordainsariei buruz.

Foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauetan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15., 17. eta 37. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, hona ERABAKIA:

1. Ezartzea foru parlamentarien ordainsariak gehikuntza izanen dutela, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez; hain zuzen ere, 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenen ehuneko 2koa, Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat ezarria.

2. Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxikitako Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kide diren foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 62.097,70 eurokoa izanen dela 2022. urterako.

3. Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxikitako gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 55.196,54 eurokoa izanen dela 2022. urterako.

4. Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kide diren foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 46.573,10 eurokoa izanen dela 2022. urterako.

5. Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 41.397,44 eurokoa izanen dela 2022. urterako.

6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuko lehendakariak 2022ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituen ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 17an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak txosten bat jaulki du Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 2022. urterako ordainsariei buruz.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Lehendakariaren Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, Legebiltzarreko Mahaiak 2003ko abenduaren 30eko erabakiaren bitartez onetsitako irizpideak aplikatu daitezela Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsariak zehazte aldera.

2. Onestea, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, ezen lehendakariaren urteko ordainsari gordina 75.521,60 eurokoa izanen dela.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileek 2022ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituzten urteko ordainsari gordinak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak txosten bat egin du Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileek 2022. urtean jasoko dituzten ordainsariei buruz.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea ezen, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, honako hauek izanen direla Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen urteko ordainsari gordinak:

– Lehendakariaren kabineteko burua: 56.549,50 euro.

– Lehendakariaren idazkaria: 42.538,72 euro.

– Mahaiko kideen idazkaria: 34.420,26 euro.

– Talde parlamentarioen laguntzaileak: 34.420,26 euro.

2. Talde parlamentarioen laguntzaileei eta Mahaiko kideen idazkariari aplikatzea 2012ko abenduaren 17ko Mahaiaren Erabakiaren bidez zerbitzu-aitorpenari buruz onetsitako irizpideak.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzeagatik 2022ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituzten ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 17an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontu-hartzailtza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak jaulkitako txostena, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. eta 37. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea ezen, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, foru parlamentariak bilkuretara bertaratzeagatik jasoko dituzten ordainsariak gehikuntza izanen dutela; hain zuzen ere, 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenen ehuneko 2koa.

2. Onestea foru parlamentariak bilkuretara bertaratzeagatik 2022an jasoko dituzten ordainsa-

riak. Haien modalitateak eta zenbatekoak hauek dira:

– 150,57 euroko dieta, deituak diren ekitaldi parlamentarioetara bertaratzeagatik, egoitza Iruñean edo Iruñetik 25 kilometrora bitarteko herrietan daukaten foru parlamentariarentzat.

– 178,05 euroko dieta, deituak diren ekitaldi parlamentarioetara bertaratzeagatik, egoitza Iruñetik 25 kilometro baino gehiagora dauden herrietan daukaten foru parlamentariarentzat.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

2022. urterako araubidea, foru parlamentariak egiten dituzten bidaia ofizialengatik eta Legebiltzarreko langileek zerbitzu-ematearen kariaz egiten dituztenengatik ordainsariena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 17an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailtza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak txosten bat aurkeztu du, foru parlamentarien eta Legebiltzarren zerbitzuko langileen bidaia ofizialengatik ordainsari-araubideari dagozkion zenbatekoei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. eta 37. artikuluek ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Eguneratzea, 2022. urterako, foru parlamentariak egiten dituzten bidaia ofizialengatik eta Legebiltzarreko langileek zerbitzu-ematearen kariaz egiten dituztenengatik ordainsarien araubideari dagozkion zenbatekoak. Honako hauek izanen dira:

– Nafarroatik kanpora eginiko bidaia ofizialengatik ordainsariak (mantenu-gastu arruntak): 52,00 €/egun.

– Atzerrira eginiko bidaia ofizialengatik ordainsariak (mantenu-gastu arruntak): 83,00 €/egun.

– Lokomozio-gastuengatik ordainsaria: 0,32 euro kilometro bakoitzeko.

2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduko 8. artikuluekin bat (maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretua), honako hauek dira zerga-kargatik salbuetsiriko zenbatekoen mugak 2022rako: mantenu-gastuengatik, egunean 53,34 euro, Espainiako lurraldearen barneko joan-etorriak direnean; edo egunean 91,35 euro, atzerrira eginiko bidaiak direnean. Lokomozio-gastuengatik: 0,32 euro, eginiko kilometroko, gehi justifikaturiko bidesari- eta aparkaleku-gastuak.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Talde parlamentarioek 2022an jasoko dituzten dirulaguntzak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 17an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak txosten bat aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuaren 2022ko ekitaldirako aurrekontu-proiektuan talde parlamentarioentzat onetsiriko dirulaguntzei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 35. eta 37. artikuluek ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Ezartzea ezen, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, talde parlamentarioentzako dirulaguntzek gehikuntza izanen dutela; hain zuzen ere, 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenen ehuneko 2koa.

2. Onestea, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, talde parlamentarioek jasoko dituzten ordainsariak. Haien zenbatekoak hauek dira:

a) Diru-laguntza finkoa: 8.253,00 euro/hilabete/talde parlamentario.

b) Diru-laguntza aldakorra: Honako kontzeptu hauen baturatik suertatzen den emaitza:

- Funtzionamendu-gastuak: 1.491,00 euro/hilabete/parlamentari.

- Antolaketa-gastuak: 1.140,00 euro/hilabete/parlamentari.

- Langile eta jarduera gastuak: 4.255,00 euro/hilabete/talde parlamentarioko bost parlamentari bakoitzeko edo zatikiko.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioek eta kontratadunek beren mailaren arabera 2022ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituzten ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak, araudi indardunari jarraituz, txosten bat egin du, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioen eta kontratadunen ordainsariei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37. artikuluan eta Legebiltzarreko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea ezen, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioen eta kontratadunen ordainsariei ehuneko 2ko gehikuntza orokorra izanen dutela, hori baita Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat ezarritako portzentajea.

2. Onestea maila bakoitzaren hasierako soldatak 2022. urterako. Honako hauek dituzte urteko zenbatekoak:

Maila	Urteko zenbatekoa
A	28.235,90 euro
B	23.753,94 euro
C	19.704,86 euro
D	17.161,34 euro
E	15.095,22 euro.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

